

Anuntxi Arana

Eguberriko istorio ez sinpatikoak

A

rrautzak, esnea, okela eta halakoak saltegietan egiten direla uste omen dute haur hiritarrek. Baserritik urrun dira eta, etxaldea hirira etortzen denean, hara eramaten dituzte gurasoek. Antzara zurien luma leunak laztantzeko irrikan egoten dira orduan, eta zein pozik hartuko lituzketen altzoan txerrikumeak, eta beldur ere ez lirateke izango behiaren sabel zabalean sartzeko, Kuku-biltxo bezala, inoiz Kukubiltxoren ipuina entzun baldin badute.

Ipuina baino itsusiagoa da hazkuntza, zoritxarrez; halere, heziketak ez luke errealitatea ezkutatu behar. Nork azalduko die umeei miresten ari diren antzarak galkatuak izango direla, zintzurrean artoa sartuko dietela onil batez, mekanikoki eta bortizki, hainbestearino non, egunero jasaten dituzten asekaden ondorioz, zirrosia hasten baitzaie. Zeharo eritu baino lehenago hilko dituzte, gibela halako hamar handituta dutenean, koka ahala koipe bildurik. Eta gibel gizen hori goretsiko dute gero gastronomo delakoez Eguberriko txitxipapetan, nahiz eta Michael Moorek gaztigatua dien ankerkeria ez dela jaia: *"Force-Feeding Birds is Cruel, not Yule"*.

Txerrikume arrosek ez dute etorkizun hobea. Erakustokian dauden horiek agian ez dute gehiegi sufrituko platerera iristeko, ez dute burdinazko barrotetan itxita bizia pasatuko. Haurrek hori ikus balezate ez lukete lukainka hain gustura jango, are gutxiago noizbait aditua badute txerriak umeei parekatuak izan direla tradizioan.

Hamabosgarren mendeko antisemitek asmatu istorioek kontatzen dute juduek kristauen haurrak sakrifikatzen zituztela: gutiziatzen zuten eta beren buruari ukatzen zioten txerrikia ordezkatzeko jaten omen zuten haurkia. Eta horrela sortu zen *La Guardiako haur santu* ospetsuaren legenda.

Ezagunago da San Nikolasena. Ostaler batek hiru haur hil eta txerriak izan baili-



GAIZKA IROZ

ran gazitu omen zituen sotoko upelean. Ostatura heldu zen San Nikolas eta gaziki hortarik baizik jan nahi ez zuelako plantak egin zituen, ogro antza. Baina ez. Zerbitzatu ziotenean, platerean berean bizirik eta zutik piztu zituen hiru haurrak.

Eta Fernando Amezketarraren pasadizoa nork ez du hemen entzun? Txerri hil berria apezari lapurtu eta, goseak irudimena pizturik, bere haurraren sehaskan gorde zuela; emazteak ere nini musu guria bailitza amultsuki eragiten ziola, apezak etxea miatzen zuen bitartean.

Amatasun irudia dira behiak, "jainkosa geldiak"... Hargatik, gehienak kortan sartutaxe eta zelaia zapaldu gabe egoten dira, baita gure baserrietan ere. Horrela ordaintzen dizkiegu esnekiak, hezur azkarrak izateko egunean bost, publizitateak agintzen duenez. Preseski, esne eta gasna industriaren uzkinak dira behien umeak-eta berdin ardie-nak: errapetik kendu eta kamioietan ezartzen dira aratxeak milaka, barruan estuturik egunak pasatzeko autopistetan, gosez eta egarriz Italiaraino; eta hara helduta ere ibili gabe eta estekaturik atxikitzen dituzte, behar bezala gizendu arte.

Lucrezio handiak bere *De rerum naturan* deitoratu zuen, aldarean sakrifikatu aratxearen lepotik odola turrusta joaten den bitartean, ama marrumaka dabilela larretan gora eta behe-ra, bere umearen bila, haren apatx bikoitzek utzi aztarnen atzean, besteei erreparatu gabe eta belar xamurra dastatu gabe. Animaliek ere ezagutza duten seinale.

Irakurle arrautza zaleek eskertuko dute oilo erruleen egoera aipatzeko leku falta. Horren ordeztu, arazoari beste ikuspegitik begirada bat, jateko manerak dituen ondorioei ohartzeko eta aberetatik datozen elikagaien ekoizpenak zer kalteak ekartzen dizkigun jakiteko. Fabrice Nicolino idatzi *Bidoche. L'industrie de la viande menace le monde* (Txitxia. Okela-industriak mundua mehatxatzen du) liburua irakur eta gero hurrei konta. **n**

Ipuina baino itsusiagoa da hazkuntza, zoritxarrez; halere, heziketak ez luke errealitatea ezkutatu behar. Nork azalduko die umeei miresten ari diren antzarak galkatuak izango direla, zintzurrean artoa sartuko dietela onil batez, mekanikoki eta bortizki